


ttipi-ttapa

1993.eko Irailak 9

117. zenbakia

dohain banatzen da



**AURTENGO 'IDIAZABAL' GAZTARIK
HOBERENA SUNBILDARRA DA**

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,**

4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat,

**2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,**


aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,

**bidai agentzia bat, PVCKo nahiz zurezko leiho eta ateak,
hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

Denetarik gauzarik hoberenak.

Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.

Centro Comercial



**LUIS
MARIANO**

Irun

IRAGARKI HAU 5.600 ETXETAN SARTU DA.

ZUREA ERE SARTUKO DA

PUBLIZITATERAKO

ttipi-ttapa AUKERATUZ GERO.

non - zer

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea.

Ale honetan parte hartu dute: Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Pello Etxegia, Daniel Martiarena, Txema Urrotz, Patxi Otxandorena, Joseba Azpiroz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari Saizar, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k.

Argitaratzailea: *ttipi-ttapa*.

Laguntzaileak: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Goizueta, Leitza eta Berako udalak...

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkarte (Oñati)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85

Tirada: 5.600 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa: 63 11 88

Faxa: 63 12 91

4 AGENDA Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

7 HONTAZ ETA HARTAZ

8 IRAKURLEAK MINTZO

9/24 HERRIZ HERRI

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta... Bera eta Leitzako beste buruzko Gehigarri bereziak.

25 KIROLAK: Eskualdeko igerilariak bikain Nafarroako VI. Igeriketa txapelketan

26 ERREPORTAIA: «Elkarri: I. Topaketak Bortzirietan» Mugimenduaren oinarri soziala zabaldu eta sendotzen ari da.

Joxemanuel Irigoien

28 ELKARRIZKETA: Sunbillako 'Lizun'ekoek lortu dute Plentziako lehen saria «Gazta onaren sekretua esnean dago».

Joxemanuel Irigoien

30 MERKATU TTIKIA



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko laguntza jaso du

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450805

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Doneztebe.....(908)776314

Lesaka.....637404

Elizondo580924

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592255

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzarain515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

Botikak

► **Irailaren 11-12an,**
Lesaka, Narbarte eta F.
Lezaun (Elizondo).

► **Irailaren 18-19an,**
Etxalar, Sunbilla eta J.
Iturralde (Elizondo).

Kirolak

► **IGANTZI**
Irailaren 12an, igan-
dea, Igantziko III. Men-
di Bizikleta Ibilaldia.
Izen emateak goizeko
10 arte.

Zinema

► **DONEZTEBE**
Irailaren 20an, zine-
man 'Abenturak eta
kalenturak'. Irailaren
22an 'Monja Alfereza'.

Bestak

► **OITZ**
Irailaren 8tik 12ra
(ikus xehetasunak 16.
orrialdean).


► **ERATSUN**
Irailaren 8tik 12ra
(ikus xehetasunak 16.
orrialdean).

► **AMAIUR**
Errefetak irailaren
17tik 19ra (ikus xeheta-
sunak 16. orrialdean).

Bertsoak

► **DONEZTEBE**
Irailaren 19an, arra-
tsaldeko 6etan fron-
toian: Amaia Telletxea,
Estitxu Arozena, Se-
bastian Lizaso, Angel
M^aPeñagarikano, Mikel
Mendizabal eta Andoni
Egaña. *Gai-jartzailea:*
Patxi Larretxea. *Anto-
latzailea:* Malerrekako
Euskaltegia IKA.

► **ZUBIETA**
Irailaren 18an, ber-
tso afaria: Jon Enbeita
eta Jon Lopategi.

Bota bertsoa**Manex BERGARA****Gaia:** Sara**Neurria:** Hamarreko haundia

Larrun xokoan herri ttiki bat gure sort lekua Sara maitagarria bezain airoa baserritikan plazara mendi ederrez inguratua dena oihan eta xara udazkenean zeru gainean uso, lertxun ta antzara guziz ederren mintzaira dauka aiten hizkuntza euskara.

Berdin airosak ditu auzoak maitagarriak hauk ere Bera Etxalar Zugarramurdi Ainhoa Azkaine Senpere urrun eltzeak urrez badire ez izan jelos halere auzo arrotzen hitz emanetaz ezin den fida batere sortu bezala gauden euskaldun euskal umeak bai gare.

AKELARRE 93

Irailaren 17an Akelarre Afaria Berako Eskoletan. Irailaren 19an, igandea, Larun gainera ibilaldia eta xardin jatea.

Erakusketak

ELIZONDO

Irailaren 1etik 30era, Miguel Angel Beltzaren margoak Arizkunenea Kultur Etxean.

Ordutegia: 7etatik 9,30etara.

ELIZONDO

IZARRAK EZAGUTUZ

Irailaren 16 eta 17an, arratseko 7,30etatik 10,30ak arte, Arizkunenean. Apuntatzeko 581279 era deitu edo Kultur Etxera joan. **Laguntzaileak:** Baztango Udala eta Nafarroako Gobernua.

Gastronomia

ALMENDRAZKO PASTELA



Javier IPARRAGIRREk emana
ARAKINDEGIAkoa - LEITZA

Osagaiak 4 lagunendako:

Lau arraultze gorringo, 150 gr. azukre, 150 gr. almendra txikitua, Royal pixka bat eta lau arraultze zuringo..

Gorringoak eta azukrea ongi nahasi, oso fin gelditu arte.

Ondotik almendra eta Royala nahasi eta azkenean lau zuringoak a punto de nieve".

Guzia ongi nahasi eta arretik gurinakin igurtzitako ontzira bota.

Labera sartu eta han edukitu 30 bat minutu.

Baserriko feria

ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilo-
lokoa): ----- pzta. **Zerri
gizena** (95-100): --- pzta/
kilo **Zerramak:** ----- pzta./
kilo bizirik.

BEHIKIA

•Aretze gizenak:

Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra.....580
1.koa.....560
2.koa.....530

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal
Extra.....600
1.koa.....570
2.koa.....540
Oharra: Prezio hauek 300-
340 Kg. kanalean dauzkaten
idixko eta 200-250 Kg.
dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizena: 370
Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri
ona: 440 Pzta /Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 22.000
artean eta idixkoak 34.000-
38.000 Pzta. artean.

Mestizoak: urruxak 34.000
eta idixkoak 44.000 Pzta.
artean.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa

NATUR ETA ESKU TERAPIA

QUIROPRAKTIKA

*Sendatzeko modu
naturala da.
Interesatzen bazaizu
deitu telefono bontara:*

☎ 45. 16. 42



Inzakardi 3 - 1. A eta B - **DONEZTEBE**

EKAITZA OSTATUA

PUY

Altzate - BERA

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**



Xabier Garmendia
10 urteko Beratarra

- ▶ **Baduzu eskolara itzultzeko gogorik?** Ez, etzait gustatzen.
- ▶ **Hortaz, negua edo uda?** Udan baka-zioak ditugu.
- ▶ **Bainan... eskolan zerbaiz gustatuko zaizu?** Gimnasia.
- ▶ **Eta matematika ala natur zientziak?** Natur.
- ▶ **Telebistako programarik politena?** V.
- ▶ **Zinera joaten zara?** Bai, baina guttitan joaten naiz.
- ▶ **Liburutegira joaten zara noizbait?** Bai, hilabetean hiru aldiz.
- ▶ **Neskak ala mutilak dituzu lagun?** Gehienak mutilak.
- ▶ **Zein da gutien gustatzen zaizun kirola?** Tenisa.
- ▶ **Edaririk gustokoena?** Txokolate batidoa.
- ▶ **Etxean laguntzen duzu?** Bai, egunero nere gela biltzen dut.

Lollapalooza mugimendua

Duela hiru urte inguru etorri zen lehen aldiz "Jane's Addiction" rock taldea Madridentako rock sala ezagun batetara. Hagitz jende guttik zekien orduan mugimendu musikal berri baten sortzaileak zirela. Mugimendu berri honetan gure artean ezagunagoak diren taldeak ere badaude; Nirvana, Red Hoot chili peppers eta batez ere Sonic Youth. Europara banaka etorri badira ere Estatu Batuetako festibaletan mugimendu bezala funtzionatzen dute. Talde ho-



rien inguruan lo edo ernatu gabe zeuden mugimendu politiko eta sozialak ere ernatzen hasi omen dira. Larogeiko hamarkada rock aldetik hagitz pobrea izan zen, berrikuntzarik gabe, saiakera batzuk kenduta. Bertze musika mota batzuk eza-

gutzeko aukera izan genuen, batez ere latino-afro fusioak. Gizarte aurre-ratuetan punk mugimendua itzali zenetik etzen gauza aipagarriak sortu. Orain jaio edo berpiztu den mugimendu honetan, betiko dinosaurio zaharren

influentzia guti nabaritzen da. Hendrix, Jash, Sex Pistols eta Public Enemytik hurbilago daude. Los Angeleseko South Central auzoan omen dauka mugimendu honek bere sorlekua.

MARIANO

 **ARITZA**
MENDI LANAK

- Plantazioak
- Mendi garbiketak
- Kimatzeak
- Zerrakurak...

Presupuestoak konpromisorik gabe

☎ 634008 eta 627608
Plumenborda baserria-ARANTZA

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

 **MALDAERREKA S.A.**

«La Suiza» Aseguro mota guziak

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

- PAPERTEGIA • TABAKOAK •
- LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZU BERRIAK

- ☞ A-3 eta A-4 fotokopiak
- ☞ Inprenta lanak enkarguz
 - ☞ Kautxuzko zigiluak
 - ☞ Kartelak eta fakturak
 - ☞ Enkuadernazioak...

Legarrea 9, ☎ 637030 - LESAKA



Akelarre-93a ospatuko da hilaren 17 eta 19an

«Euskarak batzen gaitu! Mugarik ez!» lemapean

Irailaren 17an eta 19an ospatuko da aurten Akelarre ekitaldiaren zazpi-garren edizioa, "Euskarak batzen gaitu! Mugarik ez!" lemapean.

Antolaketa lanetan mugaz bi aldeko bederatziz elkarre ari dira: Biriartuko Belatza jaleak, Urruñako Altxa Lili, Azkaingo Hazia, Sarako Olhain, Hendaiaiko Kei-

nu, Berako Gure Txokoa eta Larun mendi taldea, Etxalarko Altxata eta Bortzirietako euskaltegia (IKA).

Irailaren 17an herri afaria izanen da Berako eskoletan gaueko 9etan.

Irailaren 19an Larunera ibilaldia eta xardin jatea arratsaldeko letan. Sagardoa eta gasna ere izanen da.

Irailan, Doneztebeko Oteiza auzoko Juansenea baserrian

Nekazariendako ikastaroak antolatu ditu ITGk



ITGk nekazariei zuzendutako zenbait ikastaro burutuko dira irailan Doneztebeko Oteiza auzoko Juansenea baserrian. Baso eta apaindurarako mintegiak, mermelada eta pattarren fabrikazioa eta eskuz egindako lukainak txorizoen fabrikazioa izanen dira kurtso hauek. Bertan izena emateko 278011 telefonora deitu behar da.

Ikastaroak gehien bat praktikoak, bidai eta bisitaldiekin, eta dohainekoak dira.

Bertze ikastaro hauek laister antolatzekoak dira: Nekazal turismoa, Naturarako gidariak, Nekazaritza eta ingurugiroa, Nekazaritza ekologikoa, zeriak landan, ahateen jakiak, nekazal mekanika eta soldadura eta hegazti hazkuntza banatua.

INFORMAZIOA:

- 📎 Nominak
- 📎 Aseguro Sozialak
- 📎 Lan-kontratu bonifikatuak
- 📎 Enpresa berrien sortzea
- 📎 Diru-laguntzak
- 📎 Errenta Deklarazioak
- 📎 Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



SUGEAK EKOLOGISTENTZAT

Egia ote den edo ezekologistak sugeak botatzen dituztela nik ez dakit. Baserritarrak arloak garela eta ez ditugula ezagutzen. Ez omen dira benenosoak gehienak, batzuk bakarrik. Aurten bezala inoiz ez dut ikusi hainbertze, etxeko atetik sartu zaizkit barrenera. Baezpaere hil, ekologista horiek hainbertze maite badituzte, etxera eramatea.

Ikusten da, ez direla belarrak egiten gu bezala ibiltzen eta zaintzeko astirik izanen dute. Eta gauza horiekin jarraituz, satorren arazoa aipatu nahi nuke. Satorrak hiltzea ere debekatua omen dago, ez daudela, desageritzen ari direla, eta honelako kontuk. Neri aurten, patata pila ederra jan egin didate. Zer, orain nik

satorrak manteindu egin behar ditut edo?

Nork ordaintzen dizkit niri, sartu ditudan orduak?



Nekazari bat

Oharra

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi

duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, erredakzioak bere esku izanendu horretarako eskubidea.

SAROB okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

MOLINERO PINTURAK



Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen arabera prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40 BERA

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO BIDAIK

- ✕ HERRIAK
- ✕ MENDIAK
- ✕ TURISMOA
- ✕ TREKING eta BIDAI ALTERNATIBOAK

BIDAI
AGENTZIA
G.A.T. 2.015

ADUANAKALEA, 5
☎ 943 - 615177
☎ 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 IRUIN


Lau beratar Kilimanjarora joan dira

Irailaren 26rako itzultzea espero dute 5.895 metrotako mendia igo ondotik

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Imanol Larrañaga, Mikel Sainz, Xabier Zubieta eta Luis M^a Pikabeak gazteek osatzen dute beratar espedizioa Kilimanjaro mendira, Tanzanian. Espedizioa antolatzearen idea joan den urte bukaeran sortu bazitzaie ere, udaberri honetan hasi ziren guzia antolatzen. Guzia aintzinetik pentsatu bezala ateratzen bazaie, 23 egun beharko dute joan etorria egiteko, nahiz eta mendia-ren igoera-jeitsiera egiteko 5 egun bertzerik ez enplegatu. Han bertan gidari bat eta bi porteadore kontratatuko dituzte bidean laguntzeko eta materiala garraiatzeko.

Espedizioaren aurrekontua milioi bat terdi pezetatara hurbiltzen da eta zatirik haundiena bestetan ostatuak jarriz lortu dute.



Abuztuaren azken asteburuan ospatu zituzten urteroko bestak Agerran. Igandean, aizkolariak eta arpanlariak ikusteko aukera izan zuten plazara bildutako auzotarrek.

Illekuetako bestak irailaren 18an eta 19an

Hilabete honen hirugarren asteburuan ospatuko dituzte Illekuetan Santakruz bestak. Larunbatean eguerdiko 12etan botako dute altxaferua eta arratsaldeko 5etan urteroko bizikleta karrera izanen da. 7etan Gure Txokoako dantzariak arituko dira eta segidan akordeoilariak eta

suzko zezena. Gauez dantzaldia 'Daltons' taldearekin. Igande goizeko 10etan meza eta 10,30etan Matzadako Tiro Txapelketa. 11,30etan haurrendako jokoak eta 2,30etan bazkaria Illekuetako karrikan. 6,30etan aizkolariak eta dantzaldia ZUP eta Zizkuitzekin.

ttipi-flash

- ❑ **III. Gure Txokoa** Igeriketa Txapelketan inguruko 120 gaztek parte hartu zuten.
- ❑ **Akelarre 93ren** barnean, irailaren 17an akelarre-afaria Rikardo Baroja eskolan eta igandean (19) Larunera ibilaldia.
- ❑ **Alkoholarekin** arazoak dituztenei, laguntzaeta informazioa emateko hitzaldi bat antolatu du urtero bezala 'Alkoholiko Anonimoak' elkarteak hilabete honen 25rako Berako Kultur Etxean.
- ❑ **Hezkuntza** Okupazionalako ikastaroetara (EPA) apuntatu nahi duenak irailaren 15a arte ematen ahal du izena Herriko Etxean. Informazio gehiagorako Toki Ona Institutura deitu (630411 telefonoa).

BOAN TAILERRA
 CITROEN Banatzailea
 KOTXE BERRIEN
 ERAKUSKETA ETA SALMENTA
 Herriko Etxeko Plaza - BERA

GOYA
 JOSTAILUAK
 JANTZIGINTZA
 OPARIAK
 BURDIN TRESNERIA
 Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

KLOXKA

 Legia 11 - 63 06 64 BERA

LABEZAR

 © 631076 • BERA

ETXEGARAI BIDEO KLUBA
 Telebista eta Bideoak
 Antena kolektiboak eta banakakoak
 Konponketa tailerra
 Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

ALKOHOLIKO ANONIMOAK
HITZALDI PUBLIKOA
 Irailaren 25ean,
 larunbata,
 arratsaldeko
 8etan
BERAKO KULTUR ETXEAN

LESAKA

Intsumisoen aldeko mozioa onartu zuen Udalak

HB eta EAk alde botatu zuten eta plenora agertutako PNVko 4 zinegotziek kontra

AITOR AROZENA

Udalak intsumisoekin elkartasuna adierazi zuen, EA eta HB udal taldeen aldeko bortz botoekin eta plenora agertu ziren PNVko lauen kontrakoarekin. Idatzia, Nafarroako Intsumiso-objetoreen senideen elkarteak aurkeztu zuen.

Bertzeak bertze, arrazoi honegatik kartzelan daudenei indultoia ematea eskatu zaie epaileei eta gaur eguneko 'Soldaduska Le-gearen' kontra agertu da Udala. Azkenik, "epaiketa politikoen ondorioz ideiak kartzeleratzen ari direla eta" Iruñeako kartzelean intsumiso izateagatik preso daudenen askatasuna eskatu zuen plenoak.

PNVkoek kontra botatu zuten, "nahiz eta puntu batzuren alde egon". Beraien ustez, "politikoak ezin dira epaileen gaineratik paratu" eta "gazteei ezin zaie legea haustera deitu".



ARTXIBOA

Bi milioi t'erdiko subentzioa dago ibilgailua berria erosteko

Ezinduak Berako 'Uxane'ra eramateko ibilgailua erosiko du DYAK

Nafarroako Gobernutik bi milioi t'erdiko dirulaguntza jaso ondotik ibilgailu berri bat erosiko du DYA elkarteak. Honela, zerbitzu berria eskeini nahi zaie Berako Uxane zentro-ra doazen ezindu sikikoei. Momentu honetan 13 lagun daude zentroan, 9 Berakoak, 3 Etxalarkoak eta

Lesakako 1. Orain arte, Lesakatik eta Etxalartik Uxanera taxia edo ibilgailu partikularretan joan behar zuten ezinduek. Bertzalde, baserrietan bizi diren zenbait ezindu ez zuten Uxanera joateko aukerarik, horrek lan haundia suposatzen baitzien familiakoei.

W ttipi-flash

- 'Agiñarako lehen moto igoera' burutuko da hilaren 19an, "Motokrak" izeneko elkarteak antolatuta. Udalak subentzioa proba egin ondoren emanen omen du.
- Onin eta Biurrana errekek garbitzeko ia 400.000 pezetako dirulaguntza jaso du udalak Nafarroako Gobernutik.
- EPA ikastaroetara apuntatzeko epea irailaren 15a arte idekia dago. Izen ematea udaletxean egin behar da. Informazioa nahi duenak dei dezala Berako Toki Ona institutora, 630411 telefonora.
- Sutagar rock taldeak kontzertu ederra eskeini zuen Atxaspi ostatuan, ortziralean, Bittiriako ostatuek antolatutako jaialdian. Jendetza polita bildu zen bertara.

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena zugandik hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

SASKI OSTATUA
LESAKA

XATURETXEA FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

LORA DENDA

TXIRULA
Bittiria 627542 LESAKA

bitxikeriak • opariak • eskulangintza

IRUBIDE OSTATUA ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

KOSKILLA OSTATUA

Larunbatetan mus txapelketak sari ederrekin

Zarandia 4 - LESAKA

Usategietako ehiza postuen enkantea larunbat honetan

Hasiera batean, 1.803.000 pezeta balio dute

PELLO eta ALBERTO

Irailaren 11n paratuko dira enkantean edo subastan Usategietako eskopetazko ehiza postuak. Garestiena sare ondoko 1.koa da, 230.000 pezetatan; merkeenak, zortzi postu, 18.000 pezetatan. Denetara, 1.803.000 pezeta balio dute ehiza postuek. Subastan ehizturiek zenbat jotzen duten ikusi behar orain. Enkantean sartu gabe, herriko ehizturiei Udalak uzten ditien postuen dirua gaineratu behar diogu lehen aipatutakoari: 330.000 pezeta. Ehizarako eskubidea urriaren 3tik azaroaren 30eraino luzatuko da.



Santiago Konpostelara erromes joan dira, bizikletaz. Orréagan abuztuaren 3an hasiera eman eta, bederatziguneguz egin dute bidea. Agustin Arribillaga, Rafael Genua, Jesus Benito Gonzalez, Iñaki Iturria, Lorenzo Cañamares eta Pedro Andres Susok, ibilaldia luzea, eta aldika gogorra, suertatu bazaie ere, ez dute joan izanaren damurik, ezta gutiagore ere

Landare aunitz galdu

Zentinela aldean sartutako haritz eta bago landa-

re gehiena ihartu egingen da. Landareari eusteko zutoiak eta zaintzeko plastikoak erori egin baitira dira, hai-

zearen eraginez edo, baita landatzeko sasoi bera idorra joan delako ere.

Hirurteko planak ez ditu Gobernuak onetsi

Udalak hiru urtetarako presentatutako proiektuei ez die ia-ia dirulaguntzarik emanen Nafarroako Gobernuak. Proiektu haundiena breaztatu gabeko baserrietako bideena zen, baina ez du sosik ere hartuko horretarako. Ur hornidura hobetzeko 5 milioi agindu ditiozte, 28 milioi kostako diren lanetarako. Hori izanen da guzia, ez badute behin behinean Udalak egin duen erreklamazioa aintzat hartzen.

EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia


Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

BEREAU jatetxea

Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 637382 - LESAKA



ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneho menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA


IGANTZI

Uda honetan, uda bera izan dugu aipagarri

Irailaren 11n izanen da III. Mendi Bizikleta ibilaldia



Aspaldi xamarreko kontuak baldin badira ere, hementxe dituzue Biltokiko Pala Txapleketa 1. eta 2. mailetako finaletan aritu ziren pilotariak



Piszina heldu den urterako prest dagoela erraten ahal da. Bete bete dago orain eta bertan paratutako kartelak ezin dela bainatu badio ere, bada probatu duenik, gauez gehienbat.

OSKAR TXOPERENA

Ez da uda izaten prezisiki berriak sortzeko tenoririk aproposena. Zerbait aipatzekotan, uda bera aipatu behar, eguraldi kaxkar xamarrarekin joaten ari baitzaigu. Adinekoek erra-

ten dutenez, ez omen dira hauek lehen bezalako urte sasoiak, orduak urtaro ba-koitzean zegokion eguraldia egiten omen zuen. Dena den, Igantziri dagokionez ez du ematen uda pasatzen denik bestak pasatzen ez

diren bitartean. Aurten ere programa ederra prestatu dute komisioko gazteek. Izanen dugu hurrengoan horretaz mintzatzeko astia. Hala ere gauza pare bat aintzindu beharrean gaude: Udalak auzolanetara

deitu duela iraileko larunbata guzietarako eta irailaren 30ean bertsolariekin eginen den bazkari herrikoirako txartelak salgai daudela 2.700 pezeta-tan. Edozein dendetan erosten ahal dira 26ra arte.

MANUEL MARTIN
Barnekalderako dekorazio dendak
Zerbitzu hauek eskeintzen dizkizue

- Era guztietako gortinak, kamilla bolanteak, edredoiak eta maindireak.
- Alfonbrak, bertakoak eta inportaziokoak Nepalekoak, Turkiakoak, Pertiakoak, Txinakoak...

Bertan egiten dituzte produktu guztiak

25 urtetako esperientzia

Bisita gaitzazu

Serapio Mugika 8
Tfnoa: 943-616603
IRUN

Pasajes 3
Tfnoa: 943-511598
ERRETERIA

TXOKOA OSTATUA

- × Eguneko menua
 - × Asteburutan, kaxuelak eta karta
 - × Gosari, bazkari eta afariak aintzinetik eskatuta
 - × Pintxoan espezialduak × Gazte giroa
- Tfnoa: 630286, Altzate • **BERA**

JEAN PAUL BOUCHET DOKTOREAK

Bere zerbitzuak eskeintzen dizkizue, erlajazio eta estresa, zelulitisa, loditasuna eta zirkulazio arazoak moldatzeko.

•••

Bere kontsulta berria Irailaren 21etik aintzineran Donamariako Hotelean irekiko du asteartero, 10etatik 1etara eta arratsaldeko 3etatik 7etara

•••

☎ 45 09 25 • 45 07 08 • DONEZTEBE

Bestetan ekitadi bereziak ospatu ziren

Frontoiaren inaugurazioa eta Sutagar-en kontzertua aipagarrienak



MIRARI eta MARTA

Astelehenean, herriko besten egitarauaren barnean frontoiaren inaugurazioa izan zen; alkatearen diskurtsoa, dantzariak eta pilota partidoak izan ziren

eta alkate izandako Evaristo Mitxelenari omenaldia egin zitzaion. Nafarroako kirol kontseilaria ere bertan izan zen.

Sutagarren kontzertuan berriz espero baino jende guttiago bildu zen. Halere,



gastua pagatzeko adina aterata omen zen.

Gainera Arantzan bertan geratu zitzaizkigun: Landondo baserrian egon ziren aste pare batez, disko berrirako entsaioak lasaitasun ederrean eginez.

□ Tximistak Irullegi baserriko 24 ardi eta aharea hil zituen.

□ Alkaiagako bestetan Ander Agesta gaztea laugarrena gelditu zen mendi bizikleta trabesian.

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

IRAGARKI HAU 5.500 ETXETAN SARTU DA
ZUREA ERE SARTUKO DA PUBLIZITATERAKO

TTIPI-TTAPA ERABILIZ GERO

ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo guztietako mobleak

ERAKUSKETAK:

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27

Tfnoa: 637034 - LESAKA

Larunbat
arratsaldetan
zabalik

KOXXKONTA



Sagardoa
botiletan
salgai

Deitu
erreserbak
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

SUNBILLA

Iaz baino jende guttiago aurtengo bestetan

Saihesbidearen irekitzea ospatuz egindako herri bazkarian giro hobea izan zen

JOSUNE ETA AINHOA

Nahiz eta azken urteetan baino jende guttixiago ibili aurretan ere giro nahiko ona izan da herriko bestetan. Eguraldiak ez du batere lagundu, batez ere azkeneko egunean, kriston erauntsiak bota bait zituen.

Ez zen horrela gertatu abuztuaren 22an, denbora hagitz ona egin bait zuen. Egun horretan, udalak herriko jendearentzat bazkaria antolatu zuen, bariantearen irekitzea ospatzeko.

Bazkaria, errepidean bertan egin zen, 400 lagun inguru elkartuz. Mahaia zubi zaharra eta zubi berriaren artean kokatu ziren.



400 lagun inguru bildu ziren abuztuaren 22an egindako herri bazkarian

Zugarramurdiko sukaldariak honako menu hau prestatu zuten: txuri ta beltzak, bildotsa, gazta, helatua, kafea, kopa eta purua. Ondotik, leku berean dan-

tzaldia 'Beti-Jai' taldearekin.

Bazkide bakoitzak 1.000 pezeta bertzerik ez zuen ordaindu. Bertze aldetik, Juanito Mariezku-

renak bildotsak ordaindu zituen eta Madrilén bizi den Miguel M^a Latasa sunbil-darrak berriz, denentzat txanpaina atera zuen.

Karrika Nagusiko etxe aintzinaldeak moldatzeko dirulaguntza eskaria luzatu zion udalak Nafarroako Gobernuari. Honen erantzuna "kamioien kolpeak aseguru etxeak ordaintzen dituela" izan da. Udalak bere aldetik, kolpeez gain euria egiten zuen egunetako putzuek, etxe paretetan uzten zituzten bustidura eta lohi puskak ere garbitu behar izan zirela gogorazi dio Gobernuari. Urak kalte handia egin zuen etxeetako zuretan.



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

BELARRA Kafetegia

Plater konbinatuak

Amezitia 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE



TELLETXEA

MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten dtugu. Fabrikanteak gara.
- Haritz, gereziondo, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak.
- Tresillo eta tapizerietan aukera zabala
- Ordaintzeko errextasunak eta zure erosketengatik opari ona eramane duzu

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**

Alondigako etxebizitza berriaren lanak geldiaraziak

Bertsolariak irailaren 19an eta Euskararen Astea 20tik 25era

TXEMA ALDABE

Udalak, Alondiga zen tokian 6 pisuko bloke berriaren eraikuntza lanak geldiarazi zituen uztailean. Urtarrilean Udalak etxe honentzat onartutako planoak eta egiten ari ziren kanpoko itxura ez da berdin-berdina. Hori dela eta herritar batek egindako denuntzia erabakiorra izan da lanak bertan behera uzteko. Onartutako planotan agertzen den baino metro bat altuagoa da. Honetaz gain, leihotan ere ba omen du akatsik. Ia bi hilabete geldirik dauden lanei jarraipena eta konponbidea



Etxebizitza berriak ez zuen planoetako baldintzak betetzen

KARMELE

emateko, Udalak bere aldetik eta Principe de Vianak bertzaldetik, informe edo txostenak egiten ari dira.

□ Bertsolariak eta

Euskararen Astea izanen ditugu irailaren 19an hasita. Egun horretan, behitiko anuntzioan ikus dezakeuen bertso saioa izanen da. Ekitaldi hau euskaltegiak

W ttipi-flash

□ Musika eskolako klaseak urriaren leian hasiko dira, urtero bezala. Solfeo, txistu, tronpeta, pianoa eta akordeoi klaseak emanen dira.

□ Irailaren 13tik 30era arte, astean lau egunez eta arratsaldeko 5etatik 8etara 2. urratseko klaseak emanen dira euskaltegian. Informazio gehiago 451555 telefonoan.

urtero egiten duen matrikulazio kanpainaren barnean da. Bertzalde, Euskararen Asteari ere hasera emanen zaio (zenbait ekitaldi agenda orrietan).

LAN ESKEINTZA

AMEZTIA Jatetxean, neska bat behar da.
Lan ordutegiaz solastuko dugu.

Deitu edozein ordutan 450028 @ra.



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

Mari Cruz

LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

BERTSO SAIOA DONEZTEBEN

- Amaia TELLETXEA •
- Estitxu AROZENA •
- Sebastian LIZASO •
- Angel M^e PEÑAGARIKANO •
- Mikel MENDIZABAL •
- Andoni EGAÑA •

Gai-paratzailea: Patxi LARRETXE

Noiz: Irailaren 19an, arratsaldeko 6etan

Non: Doneztebeko frontoian

Sarrera: 600 pezeta

Antolatzailea: Malerrekako Euskaltegia



Oitzko bestak

Irailak 8, asteazkena

Goizez suziria eta herriko elkar-tean Baztan Zopak. **12etan** herriko plazan, Oitz eta Iruritako gazteen arteko laxoa partidua.

5etan eskuzko pilota partiduak. Dantzaldia JOXE ANGELekin.

Irailak 9, ortzeguna

2etan txuleta jatea. Ondotik sokatira eta toka txapelketa.

Dantzaldia JOXE ANGELekin.

Irailak 10, ortzirala

11etan mus txapelketa. **12etan** Bidasoa txaranga. **4etan** haur jokoak eta ondotik txokolatada.

Dantzaldia BASAJAUNEkin.

Irailak 11, larunbata


1oetan meza. **11etan** laxoa partidua Oitz eta Iruritako helduen artean. Ondotik, herriko pilotari zaharren artean bertze laxoa partidua.

1etan omenaldia Ziganda laxoa pilotariari. **2etan** herri bazkaria. Bazkalondoan, Egaña, Murua, Elizagoien eta M. Arozena bertsolariak eta Gorrotxategi anaiak trikitalariak.

10etan plazan zinea: "Victor o victoria" euskaraz. Dantzaldia ZEUSekin

Irailak 12, igandea

1etan aizkol apustua: Latasa-Aierbe I, Agite-Aierbe Ilren aur-



Oitzko Jose Joakin Ziganda laxoa pilotariari omenaldia eginen zaio larunbatean



Zikiroa erretzen Eratsungo bestetan

ka. Ondotik Mitxel Latasa harrijasotzailea. Segidan, Malerre-kako I. Gazta Lehiaketa.

8,30etan 'tiro pichón'. **10etan** antzerkia Dantzaldia Iñaki BIZKALrekin.

Eratsungo bestak

Irailak 8, asteazkena

Goizez diana Aurtizko txistulariekin. **12etan** meza nagusia Santa Lokari birjinaren ohorez.

6,30etan aizkol apustua. Dantzaldia Modestorekin.

Irailak 9, ortzeguna

6,30etan herriko pilotarien arteko pilota partidua. Dantzaldia Modestorekin.

Irailak 10, ortzirala

12etan herritik ibilaldia Modestorekin. **6,30etan** herriko pilotarien arteko pilota partidua. Dantzaldia Modestorekin.

Irailak 11, larunbata

12etan haurrentzako jokoak. **5,30etan** haurren arteko pilota partiduak eta haurrentzako jokoak. Dantzaldia SCANArekin.

Irailak 12, igandea

9etan diana Aurtizko txistulariekin. **12etan** meza Retegi II pilotariaren omenez. Gero, bertsolariak eta dantzariak. Herri bazkaria Retegi IIren omenez. Bazkarira joateko alkatearen etxera joan behar da txartelak hartzera (3.000 pezetatan). Bazkarian txistulariak eta bertsolariak egonen dira. Dantzaldia SCANA taldearekin.



LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Zurezko zoletan nahi duzuna

BERA ☎ 630735

IRUN ☎ (943) 622305



CRISTALERIA VELATE

- Kristaleria orokorrean •
- Barnekaldeen dekorazioa •
- Bainurako mogleak eta manparak •
 - Pareta ispiluak •
 - Bidriera artistikoak •

Proiektuak eta aurrekontuak, konpromisorik gabe

Villaba Etorbidea 12 - IRUÑEA ☎ 132021

Merkatarien karrika 5 - DONEZTEBE ☎ 450991

Pedro Axular 1 - ELIZONDO ☎ 580825



OTORDUAK • LOGELAK

Tfnoa: 450793

Jaiak eta abuztua bukatu dira

Izugarriko juergak egin ditugu: dantzak, gaupasak, mozkorrak...

AINHOA MUTUBERRIA

Jaiak bezala, abuztua ere bukatu da eta honekin batera euskaldun berrien egoera. Bat edo beste negarrez hasi da hemendik aldegin behar duelako. Hainbat jendek oporrak Zubietan pasatu ditu: Bretoniar familia bat etorri zen eta gazteekin harreman onak izan zituzten. Ameriketako Loperena familiak bisita bat egin zigun; semearentzat denok "pollo loco" ginen. Iruñako eskola bateko haur batzuk ostatura etorri ziren kolonietara



aste batez. Hendaiako aita-semeak ere azaldu ziren, bakoitza karro bitxi batekin etorri zen, mormonak bezala, bainan kapotarik

gabe. Zaldia jesukristorenak ziren. Asto bat ere ekarri zuten eta Petrixeneko astoarekin maitasun platonikoa izan zuten.

Elutsa elkartea mugitzen hasia da

Festetan Iparraldeko dantzari talde bat ekarri zuten. Jendeak gustora ikusi zituen haurrak dantzatzen. Hileko 28rako berriz, ibilaldia antolatu zuten Belatetik herriraino etortzeko eta 13 lagun bildu ziren.

*ttipi-ttapa*ko kazetariak elkarrizketa bat izan zuten hauekin eta oso ongi pasatu ziotela esan ziguten. Hemendik gure laguntza osoa ematen diegu elkarte hontako bazkide guztiei aurrera jarrai dezaten euren helburuak lortzeko.

ITUREN

Joaldunen Eguna, irailaren 18an

IBAN ISASI

Egitaraua, honako hau izanen da: goizeko 10etan joaldunak ibiliko dira herriko karriketan zehar eta beraiekin batera herriko trikitilariak. Eguerdiko letan aizkora apostua Mindegia aita semeak Laretxea anaien kontra. Ondotik bertsolariak, Lizaso

eta Azpillaga. Arratsaldeko 3etan herri bazkaria eta ondotik bertsolariak, trikitilariak. Dantzaldia Jauregi anaiekin izanen da.

Burgosen jokaturiko Espainiako pilota txapelketan **Unai Apeztegia** suertatu zen irabazle jubiletan. Zorionak, nahiz eta berandu xamar izan.



BEINTZAKO OSTATUA

BEINTZALABAIEN



Tfnoa: 45 00 14

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

IRAGARKI HAU 5.500 ETXETAN SARTU DA

ZUREA ERE SARTUKO DA

PUBLIZITATERAKO

ttipi-ttapa ERABILIZ GERO

GOIZUETA

Herriko zaharrak omenaldiz omenaldi

Joan den larunbatean 85 urtetik gorakoen txanda izan zen

ESTEBAN AROZENA

Joan den neguan 100 urte bete zituzten 3 amona omendu baziren, aurten adinaren listoia pixka bat jeitsiz 85 urtetik gorakoei txanda tokatu zaie, egunpasa ikaragarria antolatu baitzen joan den larunbatean horretarako.

Nafarroako Aurrezki Kutxaren eta Goizueta-Aranoko udalen laguntzaz Arkupeak elkarteak antolatu zuen festan 24 goizuetar eta 5 aranoar izan ziren protagonista, hauetatik 24 emakumezko eta 5 gizonetzko. Dena den, esan be-



Ezkontzaren 53. urteurrena bete duten Juan Apezetxea eta Malen Aizpuru, bederatzi seme-alabekin batera

har da, 29tik 8 bakarrik agertu zirela eskeinitako plaka eta lore sorta jasotzera. Beste guztien ordezka-

riak ere bertan izan ziren aipaturiko opariak etxeratzeko.

Larogeritabost urtetik

gorakoen zerrenda horretan aipagarria da Juan Apezetxearen kasua, larunbatean betetzen baitzuen bere ezkontzaren 53. urteurrena. Juanek 87 urte ditu eta Malen Aizpuru bere emazteak 75, bederatzi seme-alaben guraso dira eta hemeretzi iloben aitona-amona.

Esan behar da larunbateko festak denetarik izan zuela. Meza hunkigarri bat, herriko trikitilari eta dantzarien emanaldia, Manolo Arozena eta Joxe Lizaso bertsolarien saioak, pilota partiduak eta bukaera emateko Amalur musika taldearekin dantzaldia.

ARESO

Antonio Alustiza eta 'Argi' txapeldun Huarte Arakilen

JUANA M^o SAIZAR

Antonio Alustiza artzaina eta bere txakurra 'Argi' txapeldun suertatu ziren Huarte Arakilen egindako Artzaiaren Egunean. Argik bere lanarengatik jasotakoaz gain, txakur politena izateagatik beste sari eder bat jaso zuen. Oso urduri zeuden biak eta gainera suerte txarra izan zuten, mutur beltzen ardi lotea -buru gogorrenak- egokitu bait zitzaizkien. Haizea ere nahasia zegoen, baina oztopo

hauek gaintitu eta lan ederra egin zuten. Txapel honek aukera ematen die Euskalerriko txapelketarako. Honearako gehixeago prestatu behar dute froga bereziak baitira, eguneroko lanean egiten ez direnak.

Herriko festak

Bi asteburuetan banatuak izan ditugu aurten herriko festak. Eguraldi eta festa gogo aparta izan dugu. Ez dira bisitari gehiegi izan, baina herritarrok giro goxoan ibili gara. Aurten,



Larrea elkarteak antolatu zuen mendi bizikleta ibilaldia Leitzako zenbait tabernen laguntzarekin

lehenengo aldiz gauza berriak izan ditugu. Egun batean 'Rekortadoreak' zezetan eta bestean, mendi bi-

zikleta ibilaldia. Espero baino jende gutxiago etorri zen froga honetara, 60 lagun gutxi gora behera.

Karrape irratiaren lehen pausoak

Josetxo Lizartzak zuzendu zuen San Tiburtzio bezperako saioa

JOSEBA AZPIROZ

Abuztuko azken igandean bi ordutako saio berezia entzun ahal izan zen FM 107.8 frekuentzian.

Herriko semea den Josetxo Lizartzak saio bikaina zuzendu zuen San Tiburtzio egunaren bezperan. Bertan zaharrak, gazteak, txaranga musika... bildu zituen, irratiaren zehar etxeetara festa giroa pasatuz. Antolatzailleek, honekin bakarrik ez konforme eta bi aste-buruetakoa ikastaroa antolatu zuten, 18 lagun bilduz.

Lehenengo larunbatean prestaketak eta itxurazko saio bat burutu bazuten ere, igandean benetazkoari ekin zioten.



San Tiburtzio bezperako emanaldian, Josetxo Lizartzak gain txanpaina ere ez zen faltatu noski

Kontratua laugarren urtez

Ikastolako fusiotik kontratu finkorik gabe gelditzen diren bost irakasleri kontratua beste urte bateko luzatu die Nafarroako Gobernuak.

Istilu askoren ondotik, irakasle hauek eta Nafarroako goi aldeko beste zortzik Nafarroako Gobernuaz eraman zuten bere hitza ez betetzeagatik. Sententzia beraien alde atera eta aurrez gobernarien partetik errekurtsorik ez zela izanaren esan arren, azkenean Nafarroako Epaitegi Gorenera

eraman dute beraien arteko ezadostasuna.

□ **Ontto** eta ziza erakusketa irailaren bukaera aldera egingen da. Zertxobait aurreratu da aurten, Aranzadi taldearekin harremanetan jarri ondoren egokitzat hartutako egunetan.

Lorea eta Idia

ileapaindegia

Tfnoa: 610907 - LEITZA

SAGASTI
Jatetxea

Bokadilo goxoak eta paregabeko bazkariak

Tfnoa: 610637 - LEITZA

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32 • Tfnoa: 510086 • LEITZA

ASTIZ ANAIAK ZURGINDEGIA

Elbarren 84 • LEITZA • ☎ 51 02 85

Zurgindegia orokorrean • Sukalde mobleak • Kristaldegia

OLARI

Jatetxea

Tfnoa.: (948) 45 22 54

IRURITA



Jatetxea haize egokituarekin hornitua

BAZTAN

Merkatuzelaiko camping-a egiteko deialdia hutsean gelditu da

Aurkeztu den enpresa bakarrak irabazbiderik ez dagoela erran du

JOSEBA IGARABIDE

Udalak, Merkatuzelaiko camping-a deialdia egitearen truke Frantziskanoen lurren jabetza-eskubidearen permuta eskeinin egindako deialdia hutsean gelditu da. Inmobiliaria baten ustetan udalak ezarritako baldintzetan, inolako irabazbiderik gabe kostuak estaltzea ere ezinezkoa izanen litza-teke.

Soluzio bezala, camping-aren zati bat egitea proposatzen du inmobiliaria horrek. Beraz, udalaren asmoa hutsean gelditu da momentuz.

Udalak 60 milioiko kreditoa eskatu du

Aurten aurreikusitako zenbait inbertsio ordaintzeko 60 milioi pezetatako kreditoa eskatzea erabaki du Udalak.

Udalaren ekonomi egoera larria dela eta abuztuaren azken aldera ezin izan zen eraikuntza enpresa baten aurkeztutako faktura ordaindu. Bertan, Iruritako frontoi estalia egin duen enpresak 4.095.682 pezetako dirutza eskatu zuen.



Udalaren inizatibari ez dio inork aintzina biderik ikusi Artxiboa

Elbeteko Autxitxiakoak irabazle Amaiurko I. Gasna lehiaketan

IXABEL ALEMAN

Elbeteko Autxitxiako gasnak irabazi zuen abuztuaren 15ean Amaiurren egindako I. Gasna lehiaketa. Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubiko 14 gasna eraman ziren. Bigarren saria Arizkungo SAT Amaiurrek lortu zuen. Gasna irabazlearen erdia mila durotan saldu zen.

Ondotik egindako artzai zakur lehiaketan, Amaiurko Felix Irigoienek 'Kubino' zakurrak irabazi zuen. Bigarren, Bankako Jean Mixel

Bidart artzainaren Labri izan zen.

Errebestak hilaren 17, 18 eta 19an

Amaiurren errebestak ospatuko dira.

Ortzirala 17: herri afaria Gaztelu elkartearen eta dantzaldia Izadirekin.

Larunbata 18: herri afaria Mendialden eta gaur-pasa Drindots taldearekin.

Igandea 19: Goizean futbol partidua ezkondu eta solteroaren artean. Zikero jatea herriko plazan Joxe Angelekin. Inazki taldea.

ttipi-flash

- ❑ **Argazki** laborategia jarri dute martxan Arizkunean. Aipatu behar da argazki zaharren berreskuratze kanpaina hasi duela udalak, artxibo bat egin eta gure historia txikia zabaldu nahian. Argazkiak utzi nahi dituenak Arizkunean joan behar du eta Ana Larrayz galdetu. Urrian erakusketa egiteko asmoa dago.
- ❑ **Erregerena** mendiko arazoak luze segitzen du. Eugi eta Baztanen arteko lehiak ez du ematen konponbiderik duenik auzitara joan gabe. Epailak erabaki bitartean, mendiaren egoera txartzen ari da eta horregatik Udalak mendiaren ixtea proposatu du.
- ❑ **Elizondon** ur ixurien sa-neamendu lanak egiten ari dira.
- ❑ **Ornozko** piszifaktoriko izoki eta amuarrainkumeak hil ziren ur eskasiegatik. Goitixego dagoen argi-indar zentralak ur nahikorik gabe utzi omen zuen erreka.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

UDAZKENEKO ARROPA
Aukera PUNTUZKO JERTSETAN

KASINO OSTATUA

Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO

Hilabete lasaia izan da abuztua

Zigako bestetan, lehen aldiz emakumezkoen pala txapelketa jokatu zen

PABLO MENDIBURU

Lasaitasuna izan da gauzarik nabarmenena abuztuaren Basaburuan. Aipagarriena Zigako bestak eta herri bereko Karakotxean izan zen pintura erakusketa.

Zigako bestetara jende aunitz hurbildu zen asteburuan. Urtero bezala, mus txapelketa, zikiro-jatea, herri kirolak, dantzaldiak... izan ziren. Lehen aldiz emakumezkoen pala txapelketa izan zen. Bi bikote bakarrik aritu ziren baina partidu hagitz ona egin zuten. Azkenean M^a Angeles eta Pilik 22-21 irabazi zieten Rosa eta M^a Eugeni-ri. Ea datorren urtean gehiago animatzen diren.



M^a Angeles eta Pilik (bazterrean) 22-21 irabazi zieten Rosa eta M^a Eugeni-ri (erdian)

Pintura erakusketa

Jesus Montes margolari irundarrak Zigako Karakotxean urtero bezala erakusketa zabaldu zuen hilabete osoan. 96 margolan

ikus ahal ziren, bodegoiak, nesken irudiak eta Tafallako merkatua gai bezala hartuta. Lau mila pertsona biltzen ditu urtero erakusketa honen.

ttipi-flash

- Almadozko alkatea**, Rafa Agerre, abuztuaren 14ean ezkondu zen Zigako Be-goña Etxalarekin.
- Gripearen** aurkako txerto kanpainairailaren 15ean hasiko da Osasun Zentroan. Txertoa hartu behar dutenek abisua hartuko dute. Batez ere 65 urtetik goitikoei eta arrisku taldeei -bihotzekoaz jokatokoak edo bronkio arazoak dituztenak- zuzendutako kanpaina da hau.
- Otsondo-Indartea** inguruko lur komunaletan plantazioa egiteko proiektuak 51.392.146 pezetako aurrekontua izanen du.

BAZTAN FUNERARIA
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
• TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO

OSKORRI LIBURUDENDA
Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

M^a Dolores Mirana **TOPOGRAFIA**
NEURKETAK • PLANOAK
Lur neurketak
Luberriak
Plantazioak, etab.
Santiago 68, 3. Esk. ☎ 580143 • ELIZONDO

ARROPA DENDA
FANTXIKE
MERCERIA
JAIME URRUTIA, 24
TFNO. 580312
ELIZONDO

CERVANTES HELVETIA SEGUROS
Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

ERLOJU eta BITXI DENDA
ARRIETA
KIROL TROFEOAK
Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO

Jar zaitetz esku onetan!
Gure zentroa Metodologia Estetikoan akreditaturik dago. Dermoestetista batez gidatua eta Mediku Espezialista batez kontrolatua, zure arazoak moldatzeko tratamendu pertsonalizatu bati esker. Gainera Hidromasai Bañera, Sauna, Solariuma, Makilaia eta ilea kentzeko sistemak (elektrokoa, argizari beroa eta argizari epela zainendako espeziala) zuretzako.

Beatriz
Lurrindenda eta Apaindegia
☎ 58 02 83 • Santiago 53 • ELIZONDO

Herriko bestak, buruilaren 11tik 15era


Kontrabandisten Lasterkaldia Patxi Pikabea beratarrak irabazi zuen

MIXEL ETA JACQUELINE

Larunbata 11: 11etan dantzaldia Minxoriak taldearekin. Gau guzian, Berako txaranga eta Hazparneko 'Ezcurra' banda karriken animatzeko.

Igandea 12: 10etan meza nagusia 'Urruñarrak' klikarekin eta Sarako kantariekin. Tanborrada Marinelak taldearekin. 10,30etan errebotean: Sara/Senpere. 4etan ahate jokoa plazan. Ondotik herri kirolak, Hazparneko joaldunak eta 'Los Incansables' animatzaile direlarik. Gaueko 10etan kantaldia: Jojo eta Ramuntxo. 11,30etan soinua Drindots taldearekin.

Gauerdian suzko zezena



Pilota partiduak izanen dira zenbait egunetan, trinketean nahiz aintzin paretan
ARTXIBOA

eta egun guzian trikitilari, txistulari, gaitero eta joaldunak karriketan.

Astelehena 13: 10,30etan errebotean Aviron Bayonnais. 5,30etan trinketean pilota partida eta

plazan 'Begiraleak' dantzariak. 6,30etan makilari eta fandango xapelgoa. Gauez, karrikan 'Emak hor' klika, kantaldia Alaiak-ekin eta soinua Sustraia taldearekin.

Asteartea 14: 5,30etan

Joko Garbi. 7etan mutxikoak. Gauez, Ezpeletako txaranga eta Joselu Anaiak.

Asteazkena 15: 9etan trinketeko zabaldeian Sarako azienda primak. Arratsaldean pilota partidak esku huska trinketean eta plazan. Gauez, Azkaineko Larrundarrak klika, Baiona banda eta soinua Panpi Portugal eta Egan. Gauerdian suzko zezena.

□ **Kontrabandisten** lasterkaldian Patxi Pikabea beratarra ailegatu zen lehen Sarako plazarat, zombait metro gibeletik Mikel Larrazabal saratarrak segitzen zuela. Iazko irabazlea, Juan Manuel Irazoki beratarra izan da hirugarrena.

 **ZALDUBI**

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562
IRURITA - BAZTAN

**SUKALDE ETA
BAINU MOBLEAK**

Egoki-ren banatzaile
baimendua



HERRIKO ETXKO EDANTEGIA

*Michel de Hiltin
Gauerdian*

Tfnoa: 59 54 25 19
64310 SARA



F
FOTO
MENA
ELIZONDO

Komuniotako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure
koloretako argazkiak
**ORDU BATEZ
ERREBELATUAK**
ditugu



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

SOULE

Gurutze eta
bilarriak

☎ 45 30 38 ARIZKUN
☎ 12 35 72 IRUÑA

Turista gehienak joan dira

Uztailean eta abuztuan herriko ostatu guztiak bete zituzten

ALIZIA OLAIZOLA

Uztailean eta abuztuan bisitari aunitz izan ditugu. Nekazal giroko turismoa goiti doaie. Logelak alokatzten dituzten etxeak eta herriko hostel guztiak bete dira uda partean. Dantxarineako Joseneako kanpalekuan eta Leorlasko haitzuloetan ere turista aunitz ibili da. Urtero bezala, uztailean arkeologoak etorri ziren 15 egunetarako Berraberriko lezeak aztertzeraz eta probak egitera. Hezurak eta bertze gauza frango atzemanak dituzte



Aurtengo soroak finituxeak dituzte laborariek

eta baita Nafarroako museoratz eramanak ere.

☐ **Motocrossa** izan zen

abuztuaren 8an, normalean baino berantago. 20 laisterkarik parte hartu zuten, 3

mailetan banaturik: gazte, senior eta junior.

Uda badoa eta laborariek finitzen ari dituzte soro idortzeak. Uda hontan eguraldiak ez du batere lagundu, euri aunitz egin baitu. Alde batetik kontent dire belar aunitz bildu delako bainan bertetik ederki kostatzaie idortzea. Kezkatuak ibili dira abuztua azken aldean, belagietan arrak ikustean.

Kalte haundirik ez dute egin halere, erremedioa eman ondotik berehala desagertu baitziren.

ZUGARRAMURDI


Sara eta herriko lezeen arteko bidea moldatzen ari dira

Lanak 10 milioi pezetako aurrekontua dute

KORO ETA MARGARI

10 milioi pezetako aurrekontuarekin Sara eta Zugarramurdiko lezeen arteko bidea konpontzen hasi dira. Orain dagoen karretera kotxeentzat utzi eta oinez 'promene' ibiltzeko bidexka eginen da.

Bide hau Sabidetik hartzen da, eta lehengo bide zaharra segituz Narkoneko-bordara agertzen da. Ixtilar-teko-borda aldera ehun bat metro egin eta eskuin hartu. Errotaxarreko-bordako le-



zeen hurbiletik pasatu ondotik, erreka bazterra segitu eta Sarako lezeetan gaude.

Bide gehiena zelaia da eta arbolpean gainera.

Itxura polita hartzen ari

da eta nahiz eta oraindik ez finitua izan, jendea hasia da erabiltzen.

Bestetan giro ederra izan zen

Eta nola ez? Hitz batzu berriki pasatuak diren beste buruz. Duela urte gutxi besten moteltze bat izan genuen, giro eta jende aldetik... baina azkeneko 3-4 urteotan, urtetik urtera nabari da hobetzeraz doaiela afera, batez ere aurten. Mugaren edekitzeak zer ikusi haundia duela uste da.

EZKONTZAK

Fermin Inda Jauregi eta **M^a Luisa Dainziart Etxeberria**, Amaiur eta Urdazubikoa, abuztuaren 28an.

Jose Luis Erasun Erasun eta **Enkarna Herrera Porriño**, Saldias eta Lesakakoa, uztailearen 29an.

Jose Manuel Juanena Juanena eta **Arantxa Ezkurra Telletxea**, Doneztebe eta Ibarakoa, abuztuaren 7an.

Sofia Sappupo Ruiz eta **Jose Antonio Bengoetxea**, Doneztebe eta Arraiozkoa, abuztuaren 14an.

Ignacio Aiestaran Tapia eta **M^a Isabel Otxoteko Larralde**, Lesakakoa, abuztuaren 28an.

Isidro Urrutia Antxorena eta **Sagrario Meoki Iturriria**, Mexiko eta Lekarozkoa, uztailearen 23an.

Juan Carlos Hidalgo Hidalgo eta **Estibaliz Etxandi Karrikaburu**, Lesaka eta Oronozkoa, uztailearen 31an.

Pedro Glez Garcia eta **Ant^a Neol Irigoien**, Elizondokoak, abuztuak 7an.

Jose Manuel Juanena Juanena eta **Arantxa Ezkurra Telletxea**, Doneztebe eta Ibarakoa, abuztuaren 7an.

Pedro Goienetxe Istilart eta **Carmen Isabel Mikelez**, Elbete eta Jaengoa, abuztuaren 7an.

Jose M^a Oskariz Cordoba eta **Begoña Ursuegi Zubiri**, Elizondokoak, abuztuaren 7an.

Jose Manuel Oiartzabal Arretxe eta **Begoña Elizegi Berroeta**, Andoain eta Goizuetakoa, uztailearen 31an.

Miguel Eraso Goikoetxea eta **Ana Belaunzaran Mariezkurrena**, Are-sokoak, uztailearen 31an.

JAIOTZAK

Laura Lafarie, Sarakoa, uztailearen 30ean.

Edith Yvernault, Sarakoa, uztailearen 31an.

Nicolas Larzabal, Sarakoa, abuztuaren 6an.

Emilie Goyenetche, Sarakoa, uztailearen 29an.

Irene Elizagoien Bizente, Etxalarkoa, martxoaren 29an.

Ibai Gallardon Altzugarai, Etxalarkoa; apirilaren 6an.

Eñaut Iparragirre Zinkunegi, Etxalarkoa, uztailearen 27an.

Arkaitz Retegi Zamorano, Igantzikoa, uztailearen 13an.

Jone Lizartza Durruti, Doneztebe-koa, abuztuaren 3an.

Julen Astibia Mitxelena, Lesakakoa, abuztuaren 20an.

Mirentxu Gortari Arraztoa, Irurita-koa, uztailearen 22an.

Maialen Oteiza Iribarren, Lekaroz-koa, abuztuaren 11an.

Antonio Elizalde Elizetxe, Arizkun-koa, abuztuaren 12an.

Joseba eta **Julen Jauregi Arozarena**, Amaiurkoa, abuztuaren 21ean.

Ainara Ariztegi Karrikaburu, Zugarramurdikoa, abuztuaren 11an.

Berbizne Narbarte Hernandez, Goizuetakoa, abuztuaren 11an.

Maitane Alzuri, Arantzakoa, uztailearen 7an.

Unai Rey Ortiz, Berakoa, abuztuaren 14an.

Alvar Gonzalez Azpiroz, Berakoa, abuztuaren 26an.

HERIOTZAK

François Chaulet, Sarakoa, abuztuaren 23an, 97 urte.

Marie Olano Dithurbide, Sarakoa, uztailearen 31an, 89 urte.

Alejandro Etxeberria Salaberri, Urdazubini, abuztuaren 3an, 65 urte.

Felisa Irigoien Etxabide, Etxalarkoa, uztailearen 30ean, 74 urte.

Bartolome Ariztegi Berrueta, Etxalarkoa, abuztuaren 15ean, 68 urte.

Estefania Elizalde Zelaieta, Etxalarkoa, abuztuaren 22an, 85 urte.

Frantxisku Elizalde Zelaieta, Etxalarkoa, abuztuaren 27an, 93 urte.

Benito Habans Inda, Doneztebekoa, abuztuaren 17an, 82 urte.

Fermin Estanga Gorostiaga, Eratsungoa, abuztuaren 19an, 49 urte.

Jose Eustakio Lujanbio Zubeldia, Goizuetakoa, uztailearen 31an, 88 urte.

Mercedes Zubieta Astibia, Goizuetakoa, irailaren 2an, 89 urte.

Juliana Urkia Cabrerizo, Elizondoko-koa, uztailearen 28an, 87 urte.

M^a America Sanchez Martin, Elizondoko-koa, abuztuaren 1ean, 95 urte.

Pedro Santesteban Goñi, Elizondoko-koa, abuztuaren 1ean, 83 urte.

M^a Rosario Rekalde izagirre, Arizkungoa, abuztuaren 3an, 79 urte.

Luis Zabaleta Olaskoaga, Leitzakoa, abuztuaren 3an, 65 urte.

M^a Josefa Perurena Sagastibeltza, Leitzakoa, abuztuaren 23an, 83 urte.

Josetxo Ibarrola Zabala, Arantzakoa, abuztuaren 18an, 67 urte.

Carmen Agara Mitxelena, Arantzakoa, abuztuaren 21ean, 75 urte.

HAURRENDAKO PSIKOLOGI GABINETEA



SUASI

Santiago 56A - 2. D
Tfnoa: 580771 - ELIZONDO

Zuen seme-alabak arazoak baldin baditu:

• Bertzeekin harremanetan jartzen ez delakoz.

• Goserik ez duelakoz.

• Ikasketetan sartzen ez delakoz

DEITU!



ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO
Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure
karretek ORDU BATEZ REBELATZEN
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

Eskualdeko igerilariak bikain Nafarroako VI. igeriketa txapelketan

Bortz domina eskuratu zituzten, hauetako bi urrezkoak

Baztan-Bidasoa inguruko igerilari gazteek maila arras ona erakutsi zuten abuztuaren 21 eta 28an Iruña ondoan dagoen Gelbenzuko pizsinan egindako Nafarroako VI. igeriketa txapelketan.

Aipagarriena lortutako 5 dominak izan bazen ere, bertze zenbait probatan hiru lehen postuetatik hurbil ibili ziren gure ordezkariak. Orokorrean hagitz gustora etorri ziren Iruña aldetik, emaitza hauetaz gain giro ederrean egon baitziren bi asteburuz, beraien adineko jendea ezagutzen.

Dominak, honako hauek lortu zituzten:

Nesken alebin mailan, 25 metro bizkarka: Bortzrietako Nahia Senper (2. eta zilarrezko domina) eta Baztango Maite Galain (3. eta brontzezko domina).

Mutilen alebin mailan, 25 metro libretan, Bortzirietako Txomin Elgorriaga (1. eta urrezko domina).

Nesken infantil mailan, 50 metro tximeleta erara: Leitzaldeko Amaiur Rubia (1. eta urrezko domina).

Infantiletan, 4x50 metro erreleboak estiloka, Baztan-Bidasoako taldea (2. eta zilarrezko domina).

III. Gure Txokoa Igeriketa txapelketa

Berako Gure Txokoa elkarteak hirugarren urtez



Gelbenzuko igerilekuan Nafarroako txapelketan parte hartu zuten eskualdeko zenbait ordezkari



Berako Gure Txokoa Igeriketa txapelketan dominak eskuratu zituzten gazteak

JOXEMANUEL

antolatutako igeriketa txapelketa burutu zen abuztuaren 29an Berako pizsinan.

Proba honetan, Baztan, Leitzaldea, Malerreka, Bor-

tziriak eta Irungo Club Bidasoa Natacion taldeko 120 igerilari inguruk parte hartu zuten, alebin, infantil eta kadete mailatan.

Partaide izan ziren neska-mutilak, askeka, bizkarrak, besoka, tximeleta eta australiarra estiloetan igeri egin behar izan zuten.

Elkarri: I. Topaketak Bortzirietan

Elkarrizketa eta akordioaren aldeko mugimenduaren oinarri soziala zabaldu eta sendotzen ari da zona osoan

'Elkarri,' elkarrizketa eta akordioa lortzeko giza mugimenduaren oinarri soziala zabalitzen eta sendotzen ari da gure herriotan. Horixe frogatzen du abuztuaren 28an Arantzan burutu den I. Topaketak. Goizeko 10etatik 2ak arte, Bittor Aierdi eta Gotzone Sestorainekin batera, Bortzirietako hogeiren bat lagun bildu ziren Elkarrik azken hilabeteotan burutu duen lanaren balantzea eta balorazioa egiteko. Honetaz gain, hilabete honen 18an Eibarren Elkarrik burutuko duen III. Batzar Orokorra aurkeztuko diren proposamen eta plangintzaz ere aritu ziren, eta topaketei akabera emateko, egoera imaginarioetan Elkarriren jarrera eta iharduerari buruzko joku simulatuak.



Apirilaren 23an egin zen Bortzirietako Elkarriren aurkezpen ofiziala Berako Kultur Etxean. Ekitaldi hartara ehunen bat lagun bildu ziren eta geroztik ez dira geldirik egon.

Elkarri sortu zene-tik Euskal Herri osoan zehar 72 tailer jarri ditu martxan eta bertze 28 osatzeko puntuan ditu. Datu hauei, kontaktuak hasiak dituzteneko bertze 36 herriren kasua gehitu behar zaie. Gure zonari dagokionez, talderik sendotuena Bortzirietakoa da. Baztan

eta Leitzako tailer lokalak, bestalde, finkatzeko prozesuan murgilduak daude gauregun, eta Malerrekakoa azkenik, bulkadatxo baten faltan omen dago erabat finkatzeko.

Euskal Herrian barna orain arte Elkarrik egin dituen aurkezpenetara 6.200 lagun bildu dira eta momentu hauetan 650 militante eta

bertze 500 kolaboratzaile ditu herriz herri. Aipatu azkenik, elkarrizketa eta akordioaren aldeko sinadura bilketan buru belarri sartuak dabilzala, eta mugimenduaren egoera ekonomikoak hainbat buruhauste sortzen ari diela. Halere, hilabetero mila pezeta ematen dituzten 1.600 aportante dituzte momentu honetan.

ZORTZI GALDERA, ZORTZI ERANTZUN



Oskar TXOPERENA
• Postaria •

► *Posible da akordioa gauzaztea 94aren bukaerarako?*

►► Hori espero dugu, bertzeak bertze jendea sufritzeaz aspertuta dagoelako eta arazoan inplikaturik dauden aldean metodoek orainarte ez dutelako konponketarik ekarri. Gainera herri honen etorkizunarekin itxaropentsu izan nahi dugu.



Gabi IGARTZABAL
• 'L.L.'ko Langilea •

► *Zein ondorio izanen du akordio horrek gure inguruan?*

►► Gure artean ere gai polarizatuak ateratzen direnean jarrerara itxiak, elkar ezin ikusiak, deskalifikazioak eta gorrotoak ateratzen dira. Akordioarekin espero dugu guzi hori aldatzea eta tentsioak ere lasaitzea.



Martin LEGARRA
• Apeza •

► *Zer lor daiteke elkarrizketa-rekin, jarrera hain polarizatuak daudenean?*

►► Holako egoerak bi modutara konpon daitezke: batak bertzea menperatuz edo elkarrekin hitzeginez eta akordioa iritsiz. Lehenengo bidetik urtetan ez da hemengo arazoa konpondu, beraz, bigarrena da gure ustez aukera.



Pepi ZAPIRAIN
• 'Gurea'ko Langilea •

► *Elkarrizketa zeinen artean planteatzen da?*

►► Egiazko konponbidea lortzeko, zerbait errateko eta aportatzeko duenak parte hartu behar du. Ez gaude inor baztertzeko moduan; partiduak, gobernuak, ETA, agente sozialak... Guzien konformidadeko zerbait ez bada lortzen, arazoak hor segituko du.



Jose Antonio PERURENA
• Irudi eta soinu teknikoa •

► *Elkarrik biolentzia guztiak berdin salatzen ditu?*

►► Elkarriren zeregina ez da biolentzia ezberdinak legitimoak diren ala ez aztertzea. Bide horrek ez garamatza inora. Gure egitekoa indarkeriari konponbideak bilatzea da eta hortarako pausu zehatzak ematea alde ezberdinak elkarrengana hurbiltzeko.



Pepi OLAETXEA
• Administraria •

► *Momentu honetan zertan zabilzate?*

►► Herriz herri gure mezua zabaltzen eta horretarako, bertakoekin taldeak antolatzen. Gero hor dugu baita elkarrizketa eta akordioaren aldeko sinadura bilketa haundi hori ere, eta gainera heldu den urterako plangintza presatu beharra.



Fermin IPARRAGIRRE
• Jubilatua •

► *Jendeak zer aporta diezaioke Elkarri?*

►► Bueno, maila ezberdinetan parte har dezake bere denbora eta gogoaren arabera; sinadurak biltzen, ekonomikoki laguntzen (1.000 pza. hilabete) edo herrietako tailerretan laguntzen. Nolanahi bileretara agertzen ahal da eta bertan informazioa eskatu.



Josetxo SUSPEREGI
• Bulegaria •

► *Ez zaizu iruditzen jendeak Elkarri sektore batekin eta zehazki alderdiren batekin identifikatzen duela?*

►► Beizak, guk ez diagu zurrumurru guziak gezurtatzen edo egiaztatzen ari behar. Ideologia guzietako jendea ari gaituk biltzen eta eguneroko lanak erranen dik bakoitza nor edo nolakoa den.

Sunbillako Lizun Gaztandegikoek lortu dute
Plentziako IV. Gazta Lehiaketako lehen saria

«Gazta onaren sekretua esnean dago»

Izugarrizko ilusioaz
hartu dute
Sunbillako 'Lizun'
Gaztandegikoek
Plentzian lehen saria
eskuratu izana.
«Urte guzietako
esfortzuentatik
ordain politta da»
diote gaztandegiko
Rosa Urkijo eta Luis
Vicente Larrartek,
batez ere lehiaketa
honetako epai-
mahaian prestakuntza
haundiko teknikoak
daudela ikusita.
Hortaz gainera,
kontutan hartzekoa
da Baztan-Bidaso-
aldeko aintzindariak
ditugula ardi-gazta
artesanalaren
produkzioan.



«Duela hamar urte hasi ginen gaztak egin eta komertzializatzen. Geroztik, Baztan Bidasoaldean Erregistro Sanitarioarekin eta nekazal industrien baimen guziekin lanean hasi ginen lehen gaztandegia da geurea».

ttipi-ttapa. Zer iduritu zai-
zue Plentzian sari nagusia
eskuratzea?

Lizun. Ba... lehenaldidela
Nafarroako «Idiazabal»
gazta batek Plentziako lehen
saria eskuratu duena, eta
gaztandegi haundienekin
konpetituz gainera. Le-
hiaketa honek badu bertze
sari bat ere. Urte osoan sal-
tzen ditugun Idiazabal gazta
guzietan, «Endara» marka

eramaten dutenetan, kalita-
te labela dutela segurtatzen
duen kontraetiketa bat ematen
digute jartzeko. Beraz,
lehen saria da eta urte oso-
rako saria.

ttipi-ttapa. Hamar urte bete
dituzue gaztagintzan. Hori
kontutan hartuta, nola ikus-
ten duzue egoera?

Lizun. Lehenbizikoari bi-
dea irekitzea tokatzen zaio
eta gurekin ere halaxe gerta-

tu da. Duela 10 urte erregis-
tro sanitarioa gaztandegi in-
dustrial haundiei bakarrik
ematen zieten eta gurea lort-
zeko traba aunitz gainditu
behar izan genituen. Ondotik
gaztandegi ttikiagoei ere
hasi ziren erregistroa ematen.
Denbora honetan, he-
mengo gaztandegi gehienu-
takoak honat etorri dira gu-
rea ikustera eta bidenabar
ikastera. Lehen, hasi behar

zutenei gehiago animatzen
genien, etorkizuna etzen
hain beltza ikusten. Merka-
tua biziagoa zegoen eta jen-
deak erraxago erosten zuen.
Gaur egun gauzak ez dira
hain esperantzagarriak.
Dena den argi dago pro-
dukzio eta komertzializazio
prozesu guzia gaztagileak
kontrolatzen badu, irabazi
guziak ere beretzat izanen
direla. Hasierako inbertsioa,

bertzalde, gaur egun garesti-
tiagoa da duela 10 urte-
koarekin konparatuz. Zen-
tzu horretan, lehengo egoera
hobea zen; orain irabaziak
ttikitu dira, inbertsioak
garestitu eta administrazio-
aren eskakizunak zorrotzu.
ttipi-ttapa. *Nola antolatua
duzue gazta produkzioa?*

Lizun. Abenduan hasi eta
San Juanak bitarte, banaz
bertze, egunero 150 gazta
inguru egiten ditugu. Egia
da martxo eta apiril aldean
esne gehiago izaten dela,
bainan tira... Guk geuk 60
ardiko artaldea dugu eta
hortaz, esne gehiena Male-
rreka eta Baztan aldeko 30
baserrietatik biltzen dugu.

ttipi-ttapa. *Gaztak egite-
rakoan, non topatzen ditu-
zue zailtasunik haundienak?*

Lizun. Lehenengoa eta
inportanteena esnearen kal-
itatean. Borroka luzea izan
dugu kontu honekin; hasie-
ra batean eskeintzen zigu-
ten esne guzia biltzen ge-
nuen, bainan denborarekin
selekzioa egiten joan gara
eta orain bakar bakarrik esne
tankeetan edukitakoa bil-
tzen dugu. Geroztik arazo
gutiago dugu eta kalitatea
nabarmenki hobetu da.

ttipi-ttapa. *Bainan kalitate
sanitarioa kontrolatzeko...*

Lizun. Bai... hilabeteen hi-
rutan bi baktteriologi analisi
egiten ditugu: batetik, sal-
tzaile bakoitzaren esneare-
na eta bertetik gure esne
kupelarena. Hortaz aparte,
esnea biltzerakoan, aldiro,
azidotasuna eta dentsitatea
neurtzen dugu eta bukatze-
ko gazta analizatzen da.



«Ardi-esne litroa orain bezala preziofijo batean ordaindu beharrean kalitate-primaz ordaintzen hasten denean, orduan, kalitatea nabarmenki hobetuko da. Luzera saltzailearentzat interesgarria da, gainera»



**«Esne onarekin
gazta ona egitea
ez da zaila. Hori
bai, esne txarrare-
kin gazta ona
egitea ezinezkoa
da»**

«Idiazabal» izenarekin sal-
tzen ditugunak, bertze bi
kontrol berezi dituzte apar-
te. Idiazabalekoek kama-
ratik hartu eta bi gazta
analizatu egiten dituzte eta
bertze bat dastatzeko era-
man.

ttipi-ttapa. *Geroztik, egi-
ten duzuen gazta zehatz
mehatz kontrolatua dago-
ela erraten ahal da?*

Lizun. Bai, halaxe da. Dena
den garrantzitsuena esnea-
ren kalitatea da. Pixkanaka,
artzainek hobetu dute lan
egiteko modua eta garbita-
suna, batez ere artzain gaz-
teenak. Gauzak hobetu dira
bainan oraindik gehiago
hobetu behar da.

ttipi-ttapa. *Nola dago ko-
mertzializazioaren kontua?*

Lizun. Salmenta da kontu-
rik zailena. Nahiago izaten
dugu gazta egiten ari saltze-
ra joatea baino. Dena dela,
egiten dugunatik erdia guk
geuk zuzenean saltzen dugu
Sunbillan eta inguruko he-
rriotan eta bertze erdia ba-
natzaileen bitartez Donos-
tia, Bilbo, Iruña eta Gastei-
zen. Hau harrigarria izan
daiteke bainan holaxe da.
Ageri denez bertako base-
rrietan ez da lehen haina
gazta egiten. Pentsa... esnea
saltzen diguten baserriarretan
ere badaude batzuk
azkeneko egunetako esnea-
rekin euren dako gaztak
egitea agintzen digutenak.

Testua: Joxemanuel IRIGOIEN
Argazkiak: Aitor AROZENA

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU 63 11 88 ☎

▼ Etxebizitzak

• **Lesakan** 100 m²ko pisua salgai. Moblezatua eta trasteroarekin. ☎ 637034 / 226747.

• **Donezteben** pisu amoblatu eder bat alkilatua nahi dut heldu den kurtso-rako. ☎ 450263.

▼ Lana

• **Lan** egin nahi nuke irailaren 15etik aintzina, etxeren bat garbitzen edo haurrak zaintzen. ☎ 450526 (Nekane).

• **Neska** gazte batek, Lesakan edo Beran lan eginen luke, haurrak zaintzen edo etxeko lanetan. ☎ 637061 (eguerditan 1etatik 3ak arte).

• **Lan** eginen nuke orduka edo egun osoz. Aste-buruetan ere bai. ☎ 631079 (gaueko 10etatik aintzina).

▼ Salerosketak

• **Citroen** Meari kotxea (NA-M) salgai. ☎ 630268.

• **Txakurrak** eramateko karroa (kotxe atzean lotzen direnetakoa) erosiko nuke,

merkea bada. ☎ 510265.

• **Lada-Niva** todoterrenoa extrekin salgai (NA-X). ☎ 637786.

• **Etxalarren** 132 m²ko lokala alkilatze prest. Sukaldea, almazena, komunak eta komedoreak, gas propano. ☎ 635092 (arratsetan).

• **Faxa** eta **ur-kalentadorea** salgai, berri-berriak eta prezioerdian. ☎ 631339.

• **Motoa** salgai, Aprilia 125 cc. ☎ 634077.

• **Esne tankea** Hapy markakoa, 320 litrokoa salgai. ☎ 599178 (Urdazubi).

• **Fiat Uno** xuria salgai 575.000 pezetatan. ☎ 615062.

• 3 urteko **ahari** mutur gorria salgai. ☎ 514152.

• **Ford Orion** 1600 Ghia-Si kotxea salgai. ☎ 631391.

• **Behiak** jeizteko makina salgai Zalain Zokoa. ☎ 630994.

• **Labadora** bat salgai, Zanussi markakoa. Gutu erabilia, prezio onean. ☎ 627587.

• **Motoa**, Montesa 349

salgai. ☎ 627587.

• **Esne tankea** salgai, erabili gabea. ☎ 627587.

• **Aharia** saltzeko Gipuzkoan, mutur hori eta gorriak, adarrik gabeak, 2, 3 eta 4 urtekoak. ☎ 943-331686.

• **Perts**a arrazako **katu** xuriak salgai, 15.000 pezetan. ☎ 451518.

• **Moble** zaharrak eta laborantza tresnak salgai. ☎ 451518.

• **Pentax** objetiboa, 28-80mm, salgai. ☎ 610753 (gazez).

▼ Denetarik

• **Zuhaitzak** aldatzeko barruti, belar soro edo ireztor lekua erosiko nuke Leitzen, Areson, Ezkurran, Uitzin edo Gorritin, kotxearekin bertaraino iristeko moduko lekuan. Milioi bat pezeta arte ordainduko nuke. ☎ 5104476 (Patxi).

• **Goizuetako** festetan erloju bat galdu nuen. ☎ 514101. Sarituko da.

• **Giltza** kartera bat atzeman dugu Zugarramurdin. ☎ 599144.

• **Iruñako** Unibertsitate Publikotik hurbil dagoen pisu batean leku bat baldin baduzu deitu 637921 ☎ra.

• **Bi zakurkume** erregalatuko nituzke. ☎ 510027.

• **Husqvarna** Enduro 430 motoa (NA-AC), Trail 500-600 motoaz aldatuko nuke. ☎ 453307 (gazez).

• **Neska** bat behar da Iruñako Alde Zaharrean pisu bat konpartitzeko. ☎ 580040 (goizetan-Ana).

▼ Harremanak

• **Elizondoko** Amaia Goienetxe, Ainhua Zubieta eta Marta Satrustegi. Zorionak urtebetetze egunetan (abuztuaren 28, 30 eta irailaren 3an). Txanpan botilak freskatzeko jarri. Rakel.

• **Narbarteko** Luis Mariri. Zure begiak eta ezpainak arras politak dira. Bi muxu zuk dakizun neska baten partez.

• **Leitzako** amona Ferminari zorionak bere urtebetetzeagatik. Bere hiru alaba eta sei biloben partez.



muñeca
de trapo

GIZONEZKOEN
MODA

EMAKUMEZKOEN
MODA

BIAK, IRUNgo LUIS MARIANON



BORTZIRI

ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa.

* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

BENTA - BERRI Larruaren Etxea



▼ Kazadorak, jakak, galtzak, gonak, berokiak, boltso eta eranskinak

▼ Moda saltzen dugu prezio eta kalitate hoberenetan

IBARDIN, Tfnoa: 630 708 - **BERA**

ZURE ETXEBIZITZA EROSTEKO



Pasa zaitetz gure bulegoetatik



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

- BERA •
- DONEZTEBE •
- LEITZA •
- LESAKA •



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

EUSKARA IKASTAROAK



MAILA GUZIAK
Alfabetatzea • EGA • Sakontzea

MATRIKULATZEKO EPEA:
Irailaren 13tik
urriaren 8ra

BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA

☎ 637796 / 631105

MALERREKAKO EUSKALTEGIA

☎ 451555

LEITZAKO EUSKALTEGIA

☎ 610776

